

132. FITXA ARABA – 2025eko ekitaldirako jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko 25.000 biztanletik beherako biztanleria duten udalerriak eta kontzejuak.

Sarbide-esteka: [Energia jasangarritasuna - egoitza](#)

Erreferentziazko araudia: [249/2025 Erabakia, maiatzaren 6koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea 2025eko ekitaldirako jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko dirulaguntzen lerroaren deialdiari](#)

Eremuak: Energia jasangarritasuna

Zenbatekoa: 1.100.866,46 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/07/14

Laburpena

Jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko, udalerri eta kontzejuentzako laguntza lerroa onestea da xedea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako jarduketa mota hauek diruz lagundu ahal izango dira, diruz lagundu daitezkeen gehieneko ehuneko eta dirulaguntzaren gehieneko zenbateko hauen arabera:

Jarduketa mota	Aurrekontu osoaren banaketa, jarduketa motaren arabera	Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa	Diruz lagundu daitezkeen gehieneko ehuneko
1. mota: Eraikin eta ekipamendu publikoen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentario energetikoak egitea, kontsumoak kontrolatzea, energia auditoretzak, energia eraginkortasunaren ziurtagiriak, energia	80.000 €	12.000 €	% 85

jarduketen planak, hiri mugikortasuneko planak edo klima aldaketara egokitzeke eta hura arintzeko beste plan batzuk egitea. Hori guztia toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoei dagokienez			
2. mota: Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, toki erakunde onuradunak kontsumitzen duten energia benetako eskarira egokitzeke	30.000 €	6.000 €	% 85
3. mota: Eguzki bidezko argiteria publikoa hornitzea	150.000 €	20.000 €	% 85
4. mota: Lanparak ordezte, argiteria publikoan eta toki erakundeon eraikinetan energia eraginkortasuna handitzeko	150.000 €	10.000 €	% 85
5. mota: Baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak eta ekipamendua (termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk), bai sorkuntza instalazioak, bai haiekin lotutako biltegitratze instalazioak; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzuen eskariari erantzuteko	420.866,46 €	75.000 €	% 85
6. mota: Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk aprobetxatzeko, baita karga elektrikoko azpiegiturak ere; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzuetan erabiltzeko	140.000 €	10.000 €	% 85
7. mota: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzea, bizikletetarakoak barne. Kargatzeko puntuak erabilera publikora bideratuta egongo dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuen zerbitzura	80.000 €	6.000 €	% 85
8. mota: Ibilgailu elektrikoak eskuratzea (bizikleta elektrikoak barne) erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako	50.000 €	9.000 € (1.500 € bizikleta elektrikoetarako)	% 30

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundu beharreko ekintza hasi gabe egon beharko da **2025eko urtarrilaren 1ean**. Ordainketa egiteko eskatzen diren agiriak aurkezteko eta gauzatzeko gehieneko epea **2025eko abenduaren 30a** da.